

Altza-Herrera



Mendia mintzagai

Larraitz Garmendia- (943 39 1267)

Hilaren 11tik 17ra
Herrerako mendi
elkartek antolatu-
tako VIII. Mendi
Astea egingo da

mendi asteak bi helburu ditu. Batetik, Mendizaleak taldeko kideek bizi izandako esperientziei buruz jardun nahi da. Bestetik, bertaratutakoei Euskal Herrian eta hemendik kanpo eginiko espedizioen berri eman nahi zaie.

Hilaren 11tik 17ra, Casares kultur etxean hitzaldiak

Joserra Fernandez
mendian bizi
izandako
esperientziez
ariko da

eta diapositiba emanaldiak antolatu dira. Hilaren 11n, Joserra Fernandez auzotarrak Hego Euskal Herriko mendietan izandako esperientzia eza-gutzeko aukera izango dugu. Hurrengo egunerako, berriz, hitzaldia eta diapositiba eta bideo emanaldia antolatu dira. Hilaren 13an, Asier Izagirrek beste hainbat lagunekin Patagonian eginiko ibilaldiaz jardungo du. Ostegunean, Andres Monrealen txanda izango da. Piraguismoa izango du hipzide Monrealek. Bere eskutik Dominika uhartera hurbilduko gara. Azkenik, ostiralean, Jon Beloki zarautzarra Himalaiara duela pare bat urte eginiko bidaiaz ariko da. Egun horretan, "Dunagiri 98" izenburuko ikusentzunezkoaz gozatzetik izango da.

Emanaldi guztiak 20.00etan hasiko dira. Astea amaitzeko abenduaren 17an, igandea, Elorrio-Udalatxera mendi irteera iragarri da.



IÑAUSTI

JANGELA ZABALAK ETA
ENPRESA BILERAK
EGITEKO ARETOAK

GOIZEKO 7ETATIK IREKITA

GOSARIAK,
PINTXOAK, OTARTEKOAK.

EGUNEROKO MENUA:
(10 plater aukeran) 1.200 PEZETA

MENU BEREZIAK: 3.000 PEZETA

APARKALEKU ZABALA.
LARUNBATETAN EGUN ERDIZ IREKITA.

ZUATZU KALEA 4
(EASO ERAIKUNTZA-2 ETA3
LOKALAK) 20018 DONOSTIA



TELEFONOA:
943 313 933

